

VII

Hitz laburrez eta helburutzat, gaurkotz gure ahalmenetan dena eta eskatzen dutana da:

Euskaltzaindiak izendatu "Antzerki Batzorde" batek, ikert eta atera dezala planteamendu berri bat, sariketeri buruz, gogoan hartuz, bertzeak bertze, hemen dioztanak.

HIL BERRIAK

ANTONIO ARRUE JAUNA HIL ZAIGU

Euskaltzaindiko bilkura eta lanetan beti lankide txintxo eta jarraikia izan dugun ANTONIO ARRUE jaunak betiko utzi gaitu. Gutien uste genuenean, gainera.

Egia da aspaldixotik aipatzen zuela bere on-eza edo gaisotasuna, baina kezka ematekoa ez zela gaineratzen zuen beti. Goian bego gure lagun zaharra! Zor zaizkion ainakoak izango ez badira ere, bihoaz lerro motx hauk haren oroitzapenetan.

Asteasu-n jaioa zen, 1903. urtean. Estudioak Lekarotz-en eta Oviedo-ko Unibertsitatean eginak zituen. Lege gizona. Donostiako "Julio de Urquijo" Euskal Filologi Mintegiaren fundatzaileetakoa. 1954.ean euskaltzain oso izendatua. Hizlari trebea euskeraz. Euskaltzaindiko hainbeste euskal jaialditan eskeini digu bere hitz ederraren emaitza. 1976ko azaroaren 17an hil zen.

Lanak: Guztiak aipatzeko bat ere asmorik gabe, honako hauk behintzat gogoan ditut: *Egan* aldizkarian anitz urtez mantendu du bere sail jakina: "Jan-Edanak". Hortaz gainera: Juan Bautista Agirre euskal idazleari buruz hitzaldia (*Egan*, 1954); Gerriko euskal idazleari buruz hitzaldia (*Egan*, 1956); Azkueri buruz hitzaldia (*Eusker*a, 1957); "Loramendi" olerkariari buruz hitzaldia (*Eusker*a, 1960); Peru Abarka-ren edizio berriari hitzaurrea (*Kuliska Sorta*-n); Euskeraren batasunaz hitzaldia (*Euzko Gogoa*, 1956); "Cuatro Poetas Vascos

actuales (Iratzeder, Mirande, Gandiaga, Aresti)' hitzaldia (*Euskera*, 1963-1964). Eta abar.

Ageriko lan hoietaz kanpora, ordea, distirarik ez duten lan ixil, izkutu baina guztiz beharrezkoetan zutabe sendo eta leiala izan du beti Euskaltzaindiak Arrue jaunagan; esate baterako, jestioak egiteko orduetan.

1964. urtean *Gero*-ren edizioa euskeraz eta erderaz argitaratzeko Barcelona-ko Juan Flors-ek jarri zizkigun baldinkizunak beteko baziren diru mordoia behar zen —Euskaltzaindiak ez zuena—, eta Arrue jaunaren jestioei esker eskuratu zen.

Lege gizon zen aldetik, Euskaltzaindiaren Arautegia berriztatze lanean gogotik lagundu zuen. Eta are gehiago oraindik, Euskaltzaindiaren nortasuna Gobernuak aitortzean. Guzti horrengatik Euskaltzaindiak sekulako zorra du berarekin.

Lagunduko ahal digu orain ere zerutik! Halabiz.

Fr. L. Villasante

XALBADOR

Euskaltzaindiak doluminak eta zorionak har bitza aldi berean Xalbador dela-ta. Doluminak, nola ez, euskarak galdu baitu beraren erabiltzailerik hoberenetako bat, hitzaren egiazko artista bat, nehor guttik bezala eleeder paregabea egin duen bat. Noizko ote dauka ordaina gure Jainkoak?

Har bitza, ordea, zorionak, guttiz, baina garaiz, bere baitan hartu zuelako Euskaltzaindiak idazle hau. Eta bihoazkio eskerrak idea hori izan zuenari, Aita Zabala nik uste. Horrengatik ere zordun zaio Euskal Herria jesuita langile honi.

Bai, zorionak Euskaltzaindiari, garaiz beregana Xalbador deitu zuelako. Guttiz, hori bai, baina garaiz, hil baino minutu batzuk, edo segundo batzuk lehenago, baina lehenago, jakin zuen urepeldar haundiak Euskaltzain izendatzen zutela. Haren emazteak bazekien lehenagotik ere, eta senarrak ere bazekien bere maiteak segeto bat bazuela egun hortarako, baina hiltzeko ordurarte ez zuen jakin zer zen.